



BEHAKETA-JARDUERA: Behaketak hobetzeko aholkuak

Bideo honetan Austin ikasleak eginiko tximeletaren marrazkiak eta kideen iruzkinei esker eginiko hobekuntzak ikus daitezke:

https://www.youtube.com/watch?v=E_6PskE3zfQ&t=322s

Halako zerbait lortu nahi da jarduera honekin: batetik, ikasleen behaketa-prozesua eta marrazki deskriptiboak egiteko gaitasuna hobetzea, eta, bestetik, ikasleen kritikotasuna lantzea. Asmo horrekin, ikasleei marraztu beharreko tximeleta baten irudia emango zaie eta euren lana ornodun hori marraztea izango da arkatza eta borragoma soilik erabiliz.

Arkatza eta borragoma erabiliz soilik marrazteko eskatzearen arrazoia prozesua errazteko saiakera da. Izan ere, zenbat eta material gutxiago izan, ikasleek ez dute materialen artean aukeratu beharrik eta, beraz, behaketa eta behaketen emaitzak adierazten gehiago kontzentratzen dira. Era berean, material mugatuak eskaintzeak ikasle guztiek baldintza beretan marraztea bilatzen du, koloreen erabilerak sor ditzakeen arreta-galerak ekiditeko asmoz.

Garrantzitsua da ikasleek argi izatea norberak bere gaitasunak dituela eta kontua ez dela erreferentzia-objektu edo gaiaren irudi hiperrealista bat eratzea. Hala nahi izanez gero argazki bat erabiliko genuke. Horren ordean, helburua ikasleek behaketa-prozesua hobetu eta euren hasierako marrazkiak behaketara egokitzea da. Beraz, kontuan izan ez direla ikasleak gainerako ikasleekin konparatu behar; aldiz, ikasleek eginiko hobekuntzan erreparatu behar da eta bakoitzaren erritmoa errespetatu horretarako.

Behin marrazkia amaitutzat ematean, gainerako kideen feedbacka jasoko dute ikasleek. Feedback hori, ordea, ez dute edozein modutan egingo; hemen proposatzen diren esaldi eta irizpideak baliatu beharko dituzte horretarako. Behin feedbacka jasota, ikasleek 2. marrazkia egingo dute. Nahi beste aldiz luzatu daiteke prozesu hau, eta 3- 4 marrazki egin, beti ikaskideen feedback-a jasoz.

Ikasle guztiek tximeleta espezie bera izan dezakete edo espezie beraren barruan ikasle batzuk arra eta besteek emearen irudiak izan ditzakete. Beste aukera bat tximeleta ezberdinen irudiak ematea izan daiteke.



GELAKO MATERIALAK

Eranskinetan ikasleek gainerako ikaskideen irudien inguruan hobekuntza proposamenak egiteko jarraitu beharreko urratsak aurkituko dituzu.

KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Jarduera honen helburua ikasleek behaketa eta kritikotasuna lantzea izango da, horrela, euren marrazkiak eta besteenak hobetzeko baliabideak eskainiz eta behaketa prozesua hobetuz.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Ikasleei arkatza eta borragoma soilik erabiliz marrazki bat egiteko eskatzen zaie. Ondoren, baliabideak ematen zaizkie behaketa hobeto egiteko eta marrazkia hobetzeko. Ikaskideen feedbacka ere lagungarria izango da.



AUTOEBALUAZIO ERRUBRIKA

Nahi izanez gero errubrika hau erabil zenezake autoebaluaziorako.

	BAI	GUTXI-GORA BEHERA	EZ
Ikasleen zuzenketa eta proposamenei esker marrazkiak erreferentzia irudia hobeto deskribatzen duela uste dut.			
Gehiago eta hobeto behatu dut erreferentzia nire irudia egokitzeke.			
Gustura nago nire marrazkien eboluzioaz eta egindako hobekuntzez.			
Ikaskideei feedback-a ematean errespetuz eta laguntzeko asmoz jardun dut.			
Gainerako ikasleei feedback-a ematean proposatutako esaldiak edo antzekoak erabili ditut.			

Hasieran egindako iruditik azken irudira zer gauza hobetu dituzula esango zenuke? Aipatu horietatik 3:

1. _____
2. _____
3. _____

